

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 4949

*AGINDUA, 2020ko azaroaren 5ekoa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez destinoak esleitzen baitzaizkie martxoaren 21eko JUS/404/2019 Aginduz Euskal Autonomia Erkidegoan deitutako hautaprobak gainditu dituzten Justizia Administrazioari izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionarioei (barne sustapeneko txanda).*

Justizia Administrazioaren zerbitzupeko funtzionarioak lanera sartzeko, lanpostuak hornitzeko eta lanpostuz igotzeko Arautegia onartzen duen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 28. eta 29. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, ebatzi dut destinoak esleitzea 2020ko azaroaren 5eko Aginduaren bidez Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoko karrerako funtzionario izendatu diren Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoko kideei, I. eranskinean zerrendatzen diren organo judizial eta fiskaletan (barne sustapeneko txanda), honako hauek kontuan hartuta:

Lehenengoa.– Agindu honen bidez destinoa esleitzen zaien Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionarioek hogeiei egun balioduneko epean hartu beharko dute jabetzan beren kargua, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, edo, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean batera argitaratu ezean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita, aipatutako errege-dekretuaren 29. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera. Lanpostu-jabetzea Justizia Administrazioari zuzendaritza aurrean egingo da, edo hark Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako EATetan izendatutako ordezkari funtzionarioaren aurrean, esleitutako destinoari dagokion lurraldearen arabera.

Bigarrena.– Agindu honen bidez destinoa esleitzen zaien funtzionarioek erabakitzen badute Laguntza Judizialeko Kidegoan jardunean jarraitzea, ez dute joan beharko esleitutako destinoaz jabetzera. Nahikoa izango dute erabaki hori jakinaraztea Justizia Administrazioari Zuzendaritza, lehenengo apartatuan aipatutako jabetze-epean, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 506.d) artikuluan aurreikusitako borondatezko lan-eszedentzia deklaratu ahal izateko. Borondatezko eszedentzia deklaratzeko duen ebazpenaren kopia Justizia Administrazioaren Giza Baliabideen Zuzendariordeztza Orokorreko Langileen Erregistro Nagusira bidali beharko da.

Txanda irekian hautaprobak gainditu dituzten izangaiei destinoak esleitzeko prozesua gehiegi luza ez dadin, barne-sustapeneko txandako izangaiek, jatorrizko kidegoan aktiboan jarraitzea aukeratzeko badute, horren berri eman beharko dute, agindu honen II. eranskin gisa argitaratzen den inprimakia erabiliz, [Personal\\_Jus\\_Provision@euskadi.eus](mailto:Personal_Jus_Provision@euskadi.eus) helbide elektronikoaren bitartez, bost egun balioduneko epean, destinoko esleipena eta izendapena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Hirugarrena.– Funtzionarioek Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoan sartu nahi badute eta Justizia Administrazioan bete dituzten zerbitzuen jarraikortasunean egon daitezkeen hutsuneak saihestu nahi badituzte –lanpostuaz jabetzeko behar besteko denbora behar baitute–, egun bateko baimen ordaindua eska diezaiokete Justizia Administrazioaren Zuzendaritzari, baldin eta herriz aldatu beharrik ez badaukate eta, betiere, Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionario destinoa Euskal Autonomia Erkidegoan badute; edo bi egunekoa, kontrako kasuan. Kanariar eta Balear uharteetatik, Ceutatik edo Melillatik etorri behar dutenek, ordea, hiru eguneko baimena izango dute kargu berriaz jabetzeko. Egun horiek balioduntzat joko dira, eta aipatu baimen-egunetan jabetu beharko da destino berriko plazaz.

Funtzionarioak beste lurralde-kudeatzailetza batetik edo giza baliabideen gaineko eskumena duen beste autonomia erkidego batetik badatoz, agiri horiek organo horiei helarazi beharko dizkiete, ofizioz eman diezazkieten bai Laguntza Judizialeko Kidegoan borondatezko eszedentzia, bai –Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoan lanpostuaz jabetzen diren egun berean– kargugabetze automatikoa, eta, hartara, ordainsarien ordainketan etenaldirik gerta ez dadin.

Nolanahi ere, jabetzea bideratu eta gero, kasuan kasuko EATko arduradunak jabetze-agiriaren bi ale bidaliko dizkio Justizia Administrazioako Zuzendaritzari, horren ondorioz nominan egin beharreko aldaketak egin ditzan. Zuzendaritza horrek ale horietako bat Justizia Administrazioaren Giza Baliabideen Zuzendariordetza Orokorreko Langileen Erregistro Nagusira bidaliko du, beste bat interesdunari emango zaio, eta laugarren ale bat, dagokion EATn jasota geratuko da.

Laugarrena.– Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoko lanpostu berrian jarraitu nahi duten funtzionarioek eskubidea izango dute martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuko bosgarren xedapen gehigarrian ezartzen den baimen ordaindua eskuratzeko, jabetze-egunetik aurrera. Baimen horretatik kenduko dira agindu honen hirugarren apartatuan adierazitako egunak.

Bosgarrena.– Onartutako izangaiei esleitutako plazetan dauden bitarteko funtzionarioek titularraren lanpostuaz jabetzen den egunean utziko dute plaza.

Seigarrena.– Agindu honen bidez destinoa esleitzen zaien Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionarioek, kalifikazio-hurrenkera dela-eta destinoa derrigorrean esleitzen bazaie ere, ezin izango dute lekualdatze-lehiaketetan parte hartu, agindu honen datatik hasita bi urte igaro arte. Bi urte horiek zenbatzeko, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 529.3 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoari jarraituko zaio.

Zazpigarrena.– Irailaren 14ko JUS/856/2020 Aginduaren bidez (irailaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala) izangaiei eskaini zaizkien plazetatik Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoan barne-sustapenaren bidez sartu berriak diren izangaiei esleitu gabe geratu diren plazek hutsik jarraituko dute, eta Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoan txanda librean sartzen diren izangaientzat gordeko dira.

Halaber, barne sustapeneko txandako izangaiek bete ez dituzten plazak, jatorrizko kidegoan gelditzea erabaki dutelako, aurreko paragrafoan adierazitako plazei gehituko zaizkie.

Agindu honen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Justizia Auzitegi

2020ko azaroaren 18a, asteazkena

Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legearen 9. artikuluan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 5a.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,  
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

2020ko azaroaren 18a, asteazkena

## I. ERANSKINA

## Kidegoa: Prozesu eta Administrazio Izapidetza (Barne-sustapena)

Hurrenkera-zenbakia	IFZ	Abizenak eta izena	Esleitutako lanpostua	Herria	Probintzia	Lanpostua	Dotazioa
1	***9947**	Eizmendi Isasti, Ana Jesús	Lehen Auzialdiko 15 zk.ko Epaitegia	Bilbao	Bizkaia		
2	***9619**	Irabien Ortueta, Yolanda	ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa	Amurrio	Araba/ Alava	580001	5
3	***9787**	Mendi Martín, Jaione	Merkataritzako 2 zk.ko Epaitegia	Bilbao	Bizkaia		
4	***3429**	Martín García, Leila	Zigor-arloko Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala - Instrukzio-taldea	Vitoria-Gasteiz	Araba/ Alava	580023	9
5	***8689**	Rodríguez Iglesias, Sheyla	Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra eta Beteazpena	Tolosa	Gipuzkoa	580003	61
6	***8167**	Ugalde Ruiz, Irune	Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra - Erregistro eta Banaketa	Donostia / San Sebastián	Gipuzkoa	580058	6
7	***2598**	Prieto Ruiz de Gauna, Mónica María	Zibileko Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala	Donostia / San Sebastián	Gipuzkoa	580046	7
8	***2570**	Lländler Cao, Margarita	Beteazpen Zerbitzu Erkide Prozesala - Zibileko Atala	Barakaldo	Bizkaia	580040	11
9	***2243**	Vega Iglesias, Aintzane	Lehen Auzialdiko 15 zk.ko Epaitegia	Bilbao	Bizkaia		
10	***6457**	Pardo Madariaga, Yosu	Zibileko Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala	Vitoria-Gasteiz	Araba/ Alava	580021	11
11	***0091**	Rodrigo Ruiz, Ana	Zibileko Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala	Vitoria-Gasteiz	Araba/ Alava	580021	17
12	***2400**	Guerrero Mugica, Juan Pablo	Probintzia Auzitegia 6. atala	Bilbao	Bizkaia		
13	***7316**	Rodríguez Paredes, Ana	Lehen Auzialdiko 15 zk.ko Epaitegia	Bilbao	Bizkaia		
14	***9873**	Arrue Ibarbia, Mari Larraitz	Zigor-arloko Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala- Zigor-arloko taldea	Donostia / San Sebastián	Gipuzkoa	580048	21
15	***3204**	Reyes Ballesteros, Felicitas	ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa	Eibar	Gipuzkoa	580001	21
16	***0812**	Lozano Sangrador, Héctor Francisco	Lan Arloko 5 zk.ko Epaitegia	Bilbao	Bizkaia		
17	***1318**	López Dorrego, Gustavo	Lehen Auzialdiko 1 zk.ko Epaitegia	Bilbao	Bizkaia		
18	***7427**	Hernández Sánchez, María Isabel	Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala - A Atala (Zibila, Fam., Merk. Lan, Administrazio-aziet.)	Vitoria-Gasteiz	Araba/ Alava	580030	1
19	***3845**	García Fernández, Lorena	Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala - A Atala (Zibila, Fam., Merk. Lan, Administrazio-aziet.)	Vitoria-Gasteiz	Araba/ Alava	580030	10
20	***8349**	Iglesias Colino, María Isabel	Gipuzkoako Probintzia Fiskaltza	Donostia / San Sebastián	Gipuzkoa	580015	5
21	***4397**	Vidal Sainz, María	Zibileko Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala	Barakaldo	Bizkaia	580037	12

2020ko azaroaren 18a, asteazkena

Hurrenkera-zenbakia	IFZ	Abizenak eta izena	Esleitutako lanpostua	Herria	Probintzia	Lanpostua	Dotazioa
22	***6676**	Muguruza González, Lourdes	Zigor-erloko Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala – Zigor-erloko taldea	Donostia / San Sebastián	Gipuzkoa	580048	19
23	***0124**	Blanco Barcina, Francisco Javier	Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala - A Atala (Zibila, Fam., Merk. Lan, Administrazio-aziet.)	Vitoria-Gasteiz	Araba/Álava	580030	18
24	***7475**	Lago Leonardo, Antonio	Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala - A Atala (Zibila, Fam., Merk. Lan, Administrazio-aziet.)	Vitoria-Gasteiz	Araba/Álava	580030	13
25	***0202**	Sánchez-Barcaiztegui Paquet, Federico	Probintzia Auzitegia 6. atala	Bilbao	Bizkaia		
26	***7915**	Muñoz Núñez, Natalia	Zibileko Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala	Donostia / San Sebastián	Gipuzkoa	580046	16
27	***1676**	Gordillo Vicedo, Luis	Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala - A Atala (Zibila, Fam., Merk. Lan, Administrazio-aziet.)	Vitoria-Gasteiz	Araba/Álava	580030	20
28	***2332**	Carral Llera, Yolanda	Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala - A Atala (Zibila, Fam., Merk. Lan, Administrazio-aziet.)	Vitoria-Gasteiz	Araba/Álava	580030	14
29	***2771**	Andrés Ruiz, María Julia de	Zibileko Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala	Barakaldo	Bizkaia	580037	9
30	***7692**	Vizcaya De Muerza, Haize	Zigor Arloko 7 zk.ko Epaitegia (Beteazpenak)	Bilbao	Bizkaia		
31	***1327**	Novoa Del Hierro, Mónica	Zibileko Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala	Barakaldo	Bizkaia	580037	8
32	***9336**	Rodríguez Outerelo, María Yolanda	ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa	Irun	Gipuzkoa	580001	24
33	***0447**	Elosua Lázaro, Miren Begoña	ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa	Getxo	Bizkaia	580001	77
34	***5805**	Gonzalez Alonso, Israel	Zigor Arloko 5 zk.ko Epaitegia	Bilbao	Bizkaia		
35	***7862**	Turrado Penela, Raquel	Zibileko Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala	Barakaldo	Bizkaia	580037	7
36	***1476**	Menéndez Pite, Natalia	Zigor-erloko Zuzeneko Laguntza Emateko Unitate Prozesala - Instrukzio-taldea	Barakaldo	Bizkaia	580036	9
37	***7883**	Fernández Pérez, Dino	Zigor Arloko 7 zk.ko Epaitegia (Beteazpenak)	Bilbao	Bizkaia		
38	***8201**	Cancela Rodríguez, María	Beteazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala - A Atala (Zibila, Fam., Merk. Lan, Administrazio-aziet.)	Vitoria-Gasteiz	Araba/Álava	580030	15

2020ko azaroaren 18a, asteazkena

## II. ERANSKINA

Nik, .....  
jaunak / andreak

IFZ:

Justizia Administrazioko Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionarioa naizen aldetik, hau

ADIERAZTEN DUT:

Nire asmoa dela **Justizia Administrazioko Laguntza Judizialeko Kidegoan** jarraitzea, betiere 2020-10-28ko Aginduaren bigarren puntuan adierazten denari jarraikiz (agindu horren bidez, destinoa esleitzen zaie Justizia Administrazioko Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoan barne-sustapenez sartzeko hautaprobak gairitu dituzten izangaiei; proba horien deialdia martxoaren 21eko JUS/404/2019 Aginduaren bidez egin zen).

....., 2020ko .....aren .....(a)

Sinadura,